

...eta!  
**Kitto!**

2017-X-20

1031 zkia.



# Hemen dago bailarako II. Gazta Astea



Toribio Etxebarria, 1

**EUKI**  
servicios inmobiliarios

*20 urtetik gorako esperientzia  
eskaintzen dizuegu  
balorazioetan eta eraikinetako  
salerosketa, alokairu eta  
traspasorako bitartekotzan*



bisitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

**GALDETU: 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)**



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**

**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** **Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **t** **Twitter**en: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(“...eta kitto!” k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

# Eskutitzak

## – Iker eta Amaia gure elkartasuna adierazteko argazki jendetsua –

Zapatu honetan (urriak 21), eguerdiko 12,30ean Txaltxa Zelaian (auditorioan) elkartuko gara Iker Rokandio Eibarko herritarrari, gure lagunari, gure babesa eta elkartasuna adierazteko. Baina, zergatik behar ditu Ikerrek gure babesa eta elkartasuna?

Oso simplea. Orain dela lau urte, Pasaian, bertako herritar batek autoa gaizki aparkatuta zuela, bi udaltzain agertu ziren, eurak grua eskatu, herritarra eta udaltzainen artean liskar handia sortu, eta handik gutxira auzitegian elkarri salaketak ipini. Salaketak bertan behera gera zitezen akordioa iritsi ziren, baina horietako udaltzain bat gustura ez zen geratu eta alkatea (Amaia), udal idazkaria eta udal idazkari ordezkoa (Iker) salatu zituen

auzitegian. Lehenengo epaian Iker eta Amaia urte t´erdiko kartzelaldira zigortu zituzten, baina aurrekari penalik ez zuten, ez zuten kartzelara joan behar, **baina...** Udaltzainak epaia errekurritu eta orain gutxi epai berriak bi urte t´erdiko kartzela zigorra ezarri die. Egoera gordin eta kafkiano horren aurrean Ikerri eta Amaia gure elkartasuna eta babesa adierazteko Txaltxa Zelaian argazkia ateratzearekin batera, Pasaian egiten ari diren moduan sinadurak biltzeari ekingo diogu, kartzelara joan behar baldin badute ere, kartzelaldia ahalik eta laburren izan dadin.

Txaltxa Zelaian elkar ikusiko dugulakoan.

**Ikerren lagunak**

## – Asier Cuevas H.L. heldu da! –

28a gerturatzan ari da eta, denon artean, Eibar-kaleak korrikalarien jaia izatea lortuko dugu. Beti kexatzen gara Eibarren ez dagoela leku aproposik korrika egiteko; ba, oraingoan, erdi-erditik egin dezakezue, eta trafiko barik.

Gazteekin (Multikirola programa) eta kirol egokitu atletekin hasiko gara (integrazio lanaren baruan) eta gero helduen karrera izango da. Hor guz-

tiok daukazue lekua. Garrantzitsuena parte hartzea da. Gogoratu bakarka edo taldeka (2 neska + 2 mutil) parte hartzeko aukera dagoela eta opariak izango direla denontzat (izena emateko: sailkapenak webgunean edo Deporren eguaztenetan).

Animatu eta denon artean erdigunea korrikalarietara beteko dugu!!!

**Eibarko Klub Deportiboko Atletismo Batzordea**

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LURRA HARTU.**- Landareak sustraitu. “Joan zan astian sartu genduzen landarak lurra hartu dabe”.

**LURRA JO.**- Jausi. “Gure Jaunak, kurutzia lepuan ebala hiru bidar jo eban lurra”.

Hondatu. “Hainbeste urtian harro izandako etxia, gaur lurra jota”.

## astean esanak

“Euskarazko zuri-beltzaren baliokidea ingelesez *black and white* da. Guk `galdutako objektuen bulegoa` deitzen duguna `aurkitutako gauzen bulegoa` omen da frantsesez. Berdin ulertzen dela esango didazue, eta hala da; baina galdutakoa gorde edo aurkitutakoa eskaintzea ez da, nire ustez, gauza bera”

(PILAR KALTZADA, KAZETARIA)

“Umeen %100ek Bisfenol A dute gernuan, plastikoa dute. Hori ikusi dugu umeen pixa neurtzean. Horren aurrean zer esan digute? `Lasai,

Alemaniko umeek beste da`. Beraz, Europako umeen batez bestekotik gora ez gaudenez, lasai egon behar dugu. Baina normala al da Europako umeek pixetan plastikoa botatzea?”

(NICOLAS OLEA, ERRADIOLOGOA)

“Gurasoek ez diete berdin hitz egiten semei edo alabei. Bi umeak jarduera berdinean ari badira, kontuz ibiltzeko aholkuak neskei emateko probabilitatea askoz handiagoa da, lau aldiz handiagoa. Gurasoek, aitak edo amak, azalpen gehiago ematen dizkiete 2-4 urte bitarteko alabei adin bereko semei baino, bi hurrek jolaslekuko barratik jaitsi behar dutenean”

(JOURNAL OF PEDIATRIC PSYCHOLOGY)

“Esan daiteke gure biologiari dagokion baino gehiago bizi garela. Espezie bakoitzak garrantzia sasoi bat du eta arratoiak ezin ditu elefantearen urteak hartu. Hortik aurrera arazoak besterik ez daude. Gure espeziearen biziraupen bilogikoa 70 urtetan kokatuko nuke nik, Altamirakoak adin horretatik ez zirelako pasatu. Horrek esa nahi du gure genetika bizitza-luzapen horretarako dagoela prestatuta; hortik aurrerakoa artifiziala izango litzateke. Horregatik, gure arbasoek ez zituzten izan gaur egun ezagutzen ditugun gaixotasun asko. Nomadak izanik, eguneroko 40 kilometro egin behar izateak arrisku gehiago ekartzen zizkien ordukoiei”

(JUAN LUIS ARSUGA, ANTROPOLOGOA)



PEDRO ALBERDI

**60 urte**

1957an jaiotakook aurten hirurogei urte betetzen ditugu, eta adin egokia dirudi atzera begiratu eta gogoetaren bat edo beste egiteko; esate baterako, nola bizi izan dugun hizkuntzaren azuia kontatzeko. Izan ere, oso garai desberdinak ezagutu ditugu. Gure haur eta gazte denboran, adibidez, euskararen presentzia hutsaren hurrengo zen kalean.

- Sagrado Corazoneko patioan sartutako gol guztiak erdaraz sartu genituen.

- Harindondinen erositako litxarkeria guztiak erdaraz jan genituen.

- Untzagako futbolinetan igarotako arratsalde guztiak erdaraz igaro genituen.

- Zinean ikusitako film guztiak erdaraz ikusi genituen.

- Udan trenean Debako hondartzara egindako joan-etorri guztiak erdaraz egin genituen.

- Ezkutuan erretako lehenengo zigarro guztiak erdaraz erre genituen.

- San Andreseko parrokiaren entzundako meza guztiak erdaraz entzun genituen.

- Esna egindako amets guztiak erdaraz egin genituen.

- Txantxazelaiko barraketan gastatutako sos guztiak erdaraz gastatu genituen.

- Maitemindu ginen neskatila guztiez erdaraz maitemindu ginen.

- Arrateko igoeran ikusitako txirringulak erdaraz ikusi genituen.

- Sansaburun ohostutako gerezi eta madari guztiak erdaraz ohostu genituen.

- Untzagako plazan bizikletan egindako eroriko guztiak erdaraz egin genituen.

Halako batean, ordea, asaba zaharren hizkuntzarekin egin genuen topo, eta haren tradizioak eta modernotasunak, harritu ez ezik, liluratu egin gintuzten. Harrezkero, euskaldun agertu gara jendeaurrean; harro, gainera. Eta gaur egun, mahaiaren inguruan biltzen garen aldiro, ederki gozatzen gara, lehen erdaraz egindakoak euskaraz gogoratuz.

## Beheko Tokikuak Kataluña ezagutzeko astebeteko biajia egin zeben

56 lagunekin taldea osatu eta irailaren 19xan abiatu ziran Beheko Tokikuak astebeteko biajia egittera. Aukera polita zeken aurrin eta baita ondo aprobetxatu be: "20xan Montserrat eta Codorniuko Cavak bisitatu genduzen; 21ian Besalú, Castellfolit de la Rocako juduen baiñuak eta Enbutiduaren Museua, Kataluñaiko bihotzian; 22xan Roses, Empuriabrava eta Figuereseko Museo Dali-n egon giñan; 23an Piriniuetara jo genduan, 24an Bartzelonara eta 25ian Gironara". Begibistakua da ez ebela denporarik alperrik galdu eta biajia aberasgarria izan zala bai arte arluen zein gastronomixia kontuetan. Zer esanik ez dago, Bartzelona eta Eibarren arteko partidua Camp Nou-n ikusteko aukeria parian tokauta, hori be edarto aprobetxatu ebela.



Eibartik juandako taldea Besalún etaratako argazkixan

## Pensiñuak igotzia eskatu eben jubilauek Persona Nagusixen Egunian

Urriaren 2xa Persona Nagusixen Eguna izan zala eta, Untzagan alkarrataratzia egin eben herriko jubilauek. Urteroko martxan, aurten be kolektibo horren eskaerik jasotzen dittuan agirixa irakorri eben ekitaldixan eta, azken urtiotan bezala, oinguan be pensiñuak igotzeko eskaeria nagusitu zan beste guztien gaiñetik.



Untzagan hillaren 2xan bildutako jubilauek.



## Kaleetan Kantuz-ekuek astebete emon dabe Nueva York-en

Irailaren 29tik urriaren 3ra bittartian, 32 laguneko taldea Estatu Batuetako hiri haundixenetakua bisitatzen ibilli zan. Bueltan kontau deskuenez, Premier bidaia agentziakuak "sekulako biajia" antolatu zetsen eta pozarren ibilli dira Kaleetan Kantuz-ekuek: Manhattan, Harlem eta Bronx auzuak bertatik bertara ezagutzeko aukeria euki eben eta, gaiñera, hango jatetxietan "janari tipo diferentia probau" dittue. Biajia biribiltzeko, kruzerua egin eben, Brooklyn zubixa oiñez ziherkatu... eta, zelan ez, batetik bestera kantuan be ibilli ziran!

## Mosaikua osatu eben Bularreko Minbizixaren Aurkako Egunaren bezperan

Harañegun Bularreko Minbizixaren Aurkako Eguna zala eta, beste herri askotan bezala Eibarren be hori gogoratzeko ekitaldixa antolatu eben Minbizixaren Aurkako al-



kartekuak. Parte hartzera animau ziranak Untzagan alkartu eta minbizixaren ikurra dan lazo arrosaren formarekin mosaikua osatu eben. Jarraxan, bularreko minbizixa euki dabenen omenez, globuak "askatu" zittuen.

## Kataluñako atxiloketen kontrako alkarretaratzia

Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart, Kataluñako ANC-ko eta Omnium Cultureleko presidentiak bezperan atxilotu zittuela eta, martitzenian alkarrataratziak egin ziran Euskal Herriko plaza askotan, Gure Esku Dagok deittuta. Eibarren be alkartasuna azaltzeko eta atxiloketak salatzeke asmuarekin bildu ziran hainbat herritar Untzaga plazan.



## autuan

### PP ALDERDIXAREKIN BILLERAK

Eibarko PP alderdixak herriko alkarte, talde eta enpresekin hartuemonetan ipintzeko bidia zabaldu dau, interesa dakenekin bildu eta eskaerak jasotzen juateko asmuarekin. Bide batez, JAVIER NUÑEZ Eibarko koordinadore barrixa ezagutzera emoteko aprobetxauko dabe. Biltzeko ineteresa dakanak [guipuzcoa@pp.es](mailto:guipuzcoa@pp.es) helbidera idatzi edo 943 459 033 telefonora deittuta izango dau eskaeria egitteko aukeria.



### MUGARRIXEN INGURUKO JARDUNALDIXA

"Mugarriak, gure herriko historiaren lekuko mutu horiek" izenburuko jardunaldixa eskinduko dabe Udal Artxibuan azaruaren 9xan: gaiari buruzko azalpenak emotiaz gain, artxibuan gordetako agirixak erakutsiko dittue, mugarrixak zelan berreskuratu diran azaldu... Parte hartzeko urriaren 30a baiño lehen izena emon bihar da, [egoibarra@eibar.eu](mailto:egoibarra@eibar.eu) helbidian (izen-abizenak, adina eta telefonua ipiñi).

**Funeraria-Ehorztetxe Mugica**

**EIBAR**  
Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean  
24 orduko zerbitzu iraunkorra  
943 20 19 51 [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO **funeuskadi**

Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)

# TXUKUNA

Eulojio Garate, 1 943 82 13 08

**JABEZ ALDATUTA ERE bezeroen zerbitzura beti!**

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16

# KOLORLAN

PINTURA LANAK S.L

## Eibar Coworking abiatu dabe Somos Asesores-ekuk

25 urte bete dittuela eta, urteurrenaren atxakixarekin, atzo inaugurau eben lokal barrixa Eibarko Txikito kalia, oiñ arte bulegua euki daben tokixaren aldamenian. Lokala lehengua baiño haundixagua dala aprobetxauta, Eibar Coworking izeneko proiektua be ipiñi dabe martxan: sektore diferentietako profesionalendako zerbitzu barrixa izango da eta asmua alkarlanian jarduteko bihar dittuen baliabidiak eskintzia da. Bakotxak bere produktu edota zerbitzuak erakusteko tokixa ez eze, billerak egitteko tokixa,



bezerueri harrerria egitteko gela, helbide fiskala ezartzeko gunia, dokumentaziñua in-

primitzekua, formaziñua jasotzekua... bakotxaren premiña profesionalak asetzeko bihar

dittuan zerbitzu zein baliabidiak eskinduko daben tokixa izatia nahi dabe. Gaiñera, ekintzaillieri aholkuak emetoko eta laguntzeko prest egongo dan arduradun bat be egongo da, horrelakuetan urtietako esperientzia dakan Vanesa Hortas. Gure herrittik kanpora daguazen antzera-kueri jarraituta sortu daben zerbitzua hamar bat kiderekin abiatzia aurreikusit dabe eta beste "coworking" batzurekin batera jarduteko sarean egongo dira. Informaziño gehixagorako [www.eibarcoworking.com](http://www.eibarcoworking.com) helbidian begiratu leike.



## Martitzenerako proieksiñua eta mahai-ingurua antolatu dabe Biharrian-en

Datorren martitzenian, 19:30xetan, Bertha Gaztelumendik zuzendu daben "Volar" filma ikusteko aukeria egongo da Biharrian espazioan, Ubitxa kalia. Zinemaldixan estrenau zan pelikuliak tratu txarrak jasan dittuen bederatzandi andraren testigantzak, tartian eibartar batzurenak jasotzen dittu eta, proieksiñua amaittu eta jarraixan, protagonistekin batera mahai-ingurua egingo da. Sarrerak salduta lortzen daben dirua filmarendako erabiliko dabe.

## Gipuzkoako Jubilauen Martxa hartuko dau Eibarrek bixar

Hartuemonak indartzeko eta, bide batez jarduera fisikua sustatzeko asmoz, Gipuzkoako jubilaue ta pensiodunen alkartiat aurtan be Gipuzkoako Jubilauen eta Pensiodunen oiñzko martxa antolatu dabe. Gipuzkoako 73 alkar eta jubilaue etxeren partehartzia izango daben ibilaldixa bixar izango da, Eibarren, eta ekitaldixaren harira 700 lagun inguru batzia aurreikusit dabe. Urkizun ekingo detse ibilbidiari, 11:00etan; herrixa ziherkatuko dabe jarraixan, Unibersidade Laboralera aillagau eta handik Ipuruarako bidia hartzeko. Untzagan amaittuko dabe martxa, 13:30xak aldera eta, plana biribiltzeko, Amerixka Eskolan bazkarixa eta dantzaldixa eukiko dittue.



## Primeran 50 urtekuen jaixan

Primeran ibilli ziran hillaren 7xan aurtan 50 urte bete edo beteko dittuenak. Urtero legez talde edarra osatu eben, urteroko kintada guztien artian jende gehixen batzen dabena izaten baitta. Goizetik hasitta eta egun osuan umore onian ibilli ziran, askok gabeko ordu txikixetan etxerako bidia hartzeraiño. Animo, gaztiak zarie oindiokan-eta!



## “Jana ez da txantxa” bazkarixa egingo da bixar Untzagan

Egoizia GKEE-k eta Aldatzen boluntario taldiak antolautu bixar Untzagan egingo dan “Jana ez da txantxa” IV. Bazkari solidarixua aurkeztu eben astelehenian udaletxian. Azpimarratu ebenez, “*solidaridadia lantzia oso inportantia da eta ez dogu ahaztu bihar hamen emoten dan laguntasun txikixak beste toki batzuetan gauza asko egitteko aukeria emoten dabela*”. Aurrekuetan bezala, ekitaldixari esker batzen daben dirua Perun, Piuran daguezen nekazari txikixeri laguntzeko erabiliko da eta oinguan, bestiak

beste, Arzak jatetxian idazlia eta sukaldarixa dan Xabier Gutierrezen parte-hartzia izango dau ekitaldixak. Horrekin batera, egunian zihar ikuskizun eta jarduera berezixak egingo dira eta eguardixan umiak Untzagan eskinduko daben dohaiñeko sukaldaritza taillarrian parte hartzeko aukeria izango dabe. Bazkarirako txartelak Guridi, Kultu, Kontent eta Koskor tabernetan eta Villalba supermerkaian erosi leikez (10 eurotan, 7 eurotan umiendako) eta juaterik ez dakenendako “0 platera” be ipiñi dabe salgai.



Herriko alkarte, soziedade eta beste talde batzuren laguntasuna eskertu eskertu nahi dabe antolatzailliak. **Silbia Hernandez**



## Desgaitasuna dakan bihargiña kontratatzeko hitzarmena siñatu dabe

Udalak eta Gureak eta Atzegik sustatzen daben “Pauso Berriak” programako arduradunak lankidetzat hitzarmena siñatu eben martitzenian, Down sindromia dakan bihargiña kontratatzeko. Holan, 2010. urtiaz geroztik udalian formakuntza kontratuarekin diharduan Nuria Ruizen lan-egoeria aldatuko da eta, aurrerantzian, zerbitzua emoten daben bihargiña izango da. Ekitaldixan Miguel de los Toyos alkatiak, Fran Navarro eta Idoia Malkorra “Pauso Berriak” proiektuko arduradunak, Edu Ruiz, Nuriaren nebak eta Sara Rivera izebak hartu eben parte eta, alkatiak azpimarratu ebenez, “*Nuria gurera ailegau zan egunetik gaur arte, eskatutako bihar guztiak edarto betetzen dittuala argi laga desku danori, seriotasun eta ardura haundixarekin, gaiñera. Hitzarmena siñatzeko atxakixarekin jendiari holako ekimenen barri emoteko aprobexau nahi izan dogu, inportantia dala pentsatzen dogulako*”. Udalak trebakuntza-akordixua siñatu eban 2010ian Down sindromia dakenak eurekin biharra egitteko aukeria izateko eta holan hasi zan Nuria udaletxeko konserjerixan.



Alkartasuna adierazteko ekitaldi bat baino gehixago egin da azken egunotan

## Iker Rokandio eta A. Agirregabiriari alkartasuna azaltzeko ekitaldixa egingo da bixar Txaltxa Zelaian

Pasaian 2013. urtian trafiko afera modura hasi zan liskarraren harira Amaia Agirregabiria alkate ohiarendako eta sasoi hartan jarduneko idazkarixa zan Iker Rokandio eibartarrarendako kartzela zigorra ezartzeko epaiaren aurrian, beste herri batzuetan bezala Eibarren be alkartasuna adierazteko ekitaldixa antolatu dabe: bixar 12:30xetan Txaltxa Zelaiko harmailletan talde argazkixa egingo da eta, horrekin batera, Pasaian egitten diharduen moduan siñadurak biltzen hasiko dira.

## Pobreziaren kontrako ekitaldixak

Martitzena Pobreziaren eta Bazterkerixaren Kontrako Eguna izan zala eta, La Salle Azitain ikastetxeko PROYDE-PROEGA GGKE-ko kidiak, Tandacuui gazte taldiaren laguntasunarekin, DBHko ikasliak sensibilizatzeko alkartasun jokuak egin zittuen eskolako jolastokixan. Amaieran “Pobrezia Zero” loguaren irudixarekin mosaikua osatu eben.





# osasun gida

## Dentistak

**arat**  
Hortz Klinika

943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.*

**UniverSalud**  
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

**bista eder**  
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**EIBAR** ♦ HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
Konpromisoa

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
Tlf: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57  
94 444 95 34

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluizio atipikoa  
Disfonia  
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak  
Berba arazoak  
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN



## Logopedak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
..... (Ume eta helduendako) .....

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**Berba**  
Logopedia  
AIDA CORTA ANTÓN

**Ebaluazioa eta tratamendua:**

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ANTI)  
Mobila: 622-629-544  
logopedia@berba.es

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSÉ ALBERDI**  
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologí Kliniká

· Katarata ebakuntzak  
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Psikoterapia

**FUB**  
PSIQUIATRIA  
PSICOTERAPIA  
ALFA EIBAR

RPS: 32/17

**FERNANDO URIZAR BARANDIARAN**

Medikuntza Psikiatrikoa

Tfnoa: 615 71 54 04  
fuzar1@yahoo.com

Ego Gain 18 - 1 A

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050**

**ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746**

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**

**Maidar Lopez Etxebarria**

**Arragueta 2 Bis-B, Behea B**  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

**Calbeton, 4 - 2.**  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR  
Zuberoa, 4 .....ZARAUZ  
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22  
moreno\_iciar@yahoo.es

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA  
ANTSJETATEA  
AUTOESTIMA  
ARAZOAK**

943 12 02 00  
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO  
DORRETTAN

centro médico eibar

Maila handiko gaztak dauzkagu Debabarrenan. Horrela dio Malen Sarasua eibartarrak behintzat. Leartikerreko ikerlaria da bera, eta esneki eta gaztaren inguruan aditua. Debabarreneneko II. Gazta Astearen barruan gaur egingo den dastaketa ekitaldia aurkeztuko eta bideratuko du, eta eskualdeko zazpi gazta-ekoizle hartuko dute parte bertan. Gazta Astearen egitaraua aste honetan pilatzen bada ere, urriaren 8tik hasi dira gazta-ekoizleengana egiten diren bisitak. Pintxo potea, dastaketa, azoka, erakustaldiak eta tailerrak, gazta zaporea hartuko du herriak egun hauetan.

# Badago GAZTA non DASTA



Sosola baserrian egiten den ardi-gazta dastatzeko aukera egongo da gaur, besteak beste.

**M**endi eta aldapa artean kokatuta, Debabarrenan ez dago gazta ekoizteko esplotazio erraldoirik. Mimo eta maitasun handiz artisau gaztak ekoizten dituztenak ekoizle txikiak dira nagusi gure eskualdean. Ardi-, ahuntz- zein behi-gazta ekoizten da gure inguruan, baina ardiarena da nagusi. Gazta Astea etorriko diren ekoizleen artean, adibidez, **Itziarreko Egixak, Mutrikuko Goienez, Elgoibarko Mausitxak, Mallabiko Onandik eta Eibarko Sosolak egiten dute ardi-gazta; Soralezuko Egotzak ekoizten du ahuntz-gazta; eta Mallabiko Mallegoi baserria da behi-gazta lantzen duen bakarra.**

Atzo, eguena, ekoizle hauen pintxoak dastatzeko aukera egon zen Eibarko tabernetan, baina gaur, 19:00etatik aurrera udaletxeko patioan, Malen Sarasua eta gazta-ekoizleen aurkezpen eta azalpenekin probatu ahal izango dira euren produktuak. Denetariko zaporeak aurkituko ditugu bertan, izan ere animalia mota ezberdinen esnearekin egindako gaztak aurkeztuko dira, eta ekoizle bakoitzak ekoizteko bere modua dauka. *“Esne motarengatik, animaliak jan duen pentsu eta belar motarengatik, eta amaierako gaztaren tipologiarengatik egongo da baldintzatua zaporea”,* adierazi digu Sarasuak.

Gaztak probatzen emateaz gain, euren bizimodua ere kontatuko dute gazta-ekoiz-

leek. Sosola Baserriko Enrike Sosolak eta Mallegoiko Ruben Markinak, biek ala biek, gauza bera aipatu digute. *“Oso lan handia dago gazta egiteko orduan”.* Ardi gazta egiten du Sosolak, *“gazta mota bakarra”,* eta hori lortzeko prozesua azaldu digu. *“Ardiak eta zelaiak ondo egon behar dira; esnea garbi ekoiztu behar da eta instalakuntza egokiak izan behar dituzu; arautegia zorrotz bete behar da, eta gure kasuan, gazta-ekologikoa egiten dugun heinean,*



lazo lehen edizioak izan zuen arrakasta handia izan nahi du aurtengoak ere.

*horren arautegia ere bete behar dugu; eta gero merkaturatu egin behar da, eta horrek lan eta denbora asko hartzen ditu”.* Ez dituzte lan orduak kontatzen, *“bestela, zenbakiak mahai gainean izanda, konturatuko ginen gure gaztaren azken prezioa baxuegia dela. Merkatuko prezioa jartzen*

*diogu saldu ahal izateko, ez beharko lukeena”.* Horregatik, Gazta Asteak kontsumitzaileak kontzientziatzeko balio izatea espero du.

Sosolako gazta ez dago Idiazabal sormakaren barruan. Ekologikoa izatea da euren ikurra. *“Gazta on eta herrikoia egiten saiatzen gara. Eskura ditugun baliabide naturalekin eta, gure mugen artean, gauzak ahalik eta efizientzia handienarekin egiten saiatzen gara”.*

Eskualdean ardi-gazta gailendu izana ohituragatik izan dela aipatu digu Sosolak, baina behi-gaztaren aldeko apustua egin du Ruben Markinak Mallegoi baserrian. Osasun kontuengatik behi-gazta ekoiztu eta kontsumitzen zuen boliviarraren bisita jaso zuen eta hortik abiatu zen gazta egiteko aukera. 2015ean jarri ziren martxan eta eten gabe lanean ari dira orduak. *“Gure kabuz egin dugu guttia, bidean ikasiz, galdetuz eta Malen Sarasua bezalako ikerlarien laguntzarekin”,* aitortzen digu Markinak. Behi-gaztak ez dauka ardi-gaztak eskualdean duen bidea, ezta horrek atzean izan ditzakeen erakunderik ere (Idiazabal, kasu), baina Mallegoin bidea egiten ari dira.

## Gaztara hurbiltzen

Gaztaren mundura hurbildu eta horren inguruan gehiago jakin ahal izateko hain-

bat ekitaldi antolatuta dira domeka goizera-ko. 10:00etatik 14:00etara gazta azoka eta hainbat erakustaldi egingo dira. Soraluze-ko Egotza baserriko Nagore Martinek, adibidez, gazta egiteko prozesua zein den azalduko du. Gero, latxa ardiaren artilea eraldatzeko prozesua azaltzeko erakustaldia ere egingo denez, Ipar ardi moztailleak artilea moztuko du, Lasturko Goikola baserriko Garazi Pascualek irutea eta ehuntzea egingo du, eta Miren Torrealday eibartarrak artilea tindatuko du.

Umeak ere gaztaren munduan murgiltzeko, hainbat tailer egingo dira 11:30etik hasita. Horrela, gazta egin, irutea eta ehuntzea, eta artile-tindaketa egingo dute eurek ere.



Ruben Markinak Mallegoi baserrian egiten duen behi-gazta izango da mota horretako bakarra dastaketan.

Urriko asteburuetan, gainera, aurrez aipatutako ekoizleen baserrietara bisitak antolatuta dira eta oraindik bi bisita daude egiteke. Bata Sosola baserrira, hilaren 28an 16:30ean, eta bestea Mutrikuko Goieneztxera, 29an 11:00etan. Izena eman nahi izanez gero, Debemenen bulegora (943 744 067) deitu behar da.

## MALEN SARASUA (elikagaien teknologiako ikertzailea):

### "Baserriko mimoarekin egindako gazta-artistaua edukitzea altxorra da"



– *Eskualdean ekoizten diren ardi-, ahuntz- eta behi-gaztak egongo dira dastagai eta erakusgai Debabarreneko II. Gazta Astean. Gure eskualdea toki aproposa da gazta mota guzti horiek ekoizteko ala bertako egoeretara moldatu behar izan dira ekoizleak?*

Hala nola moldatu dira gazta hauek ekoizteko. Mendi aldapatsu artean bizi gara eta animaliek belar nahikoa edukitzea da ekoizleek aipatzen duten zailtasun handienetako bat. Baina era batera edo bestera, modu onean lan egitea lortzen dute animaliak lurzoru ezberdinetan sakabanatzen.

– *Urtetik urtera, gaztak berdin ekoiztuz gero, zaporeek berdin jarraituko dute edo aldaerak daude?*

Gazta produktu erabat aldakorra da. Alde batetik, oso gauza aberasgarria da, baina bestetik, erregularitatea lortzeari begira, gazta-ekoizleek duten zailtasun edo oztopo bat da. Izan ere, esnearekin egiten da gazta eta esnea aldakorra da. Sasotik sasaira esnea aldatu egiten da, ez direlako berdinak umea eduki berri-tan animaliak ematen duen esnea edo kanpaina aurrera doan heinean emandakoa, esnearen konposizioa aldatu egiten delako. Klimak ere eragiten du, animalia kanpoan belarra jaten denbora gehiago edo gutxiago egotea ez delako berdina. Esnea egunero ezberdina de-

nez, nahiz eta pautak berak jarraituta ekoiztu, gazta aldakorra izan daiteke amaieran. Gaztaren nortasuna bera ere aberasgarria da.

– *Nolako maila daukate eskualdeko gaztek?*

Oso altua, eta pentsatzen dut kontsumitzaileok gehiago baloratu beharko genituzkeela. Egia da askotan ez dugula baloratzen gazta bat egiteko atzean dagoen lan guztia. Animalien zainketa, esnea jetzi, mimo guztiekin gazta egin eta gazta merkatuan ondo posizionatu. Prezioan bakarrik oinarritzen gara askotan, baina gazta on baten atzetik dagoen lana demasa da eta baserriko mimoarekin egindako gazta-artistaua edukitzea altxorra da. Bestetik, hain eskualde txikian horrelako barietate handia edukitzea demasa da.

– *Elikagaien teknologiako ikertzailea zara Leartikerren. Eskualdeko gazta ekoizleekin elkarlanean aritzen zara?*

Bai, maila ezberdinetan. Batetik, eguneroko aholkularitza eskainiz, eduki dezaketen zalantza edota kezak argitze-ko, egunerokoan sortzen diren arazoak konpontzeko. Bestetik, dibertsifikatu nahian dabilta hainbat ekoizle. Hau da, gazta tradizionala edo beti egin duten gazta egiteaz gain, beste gazta mota edo esneki batzuk ekoiztu nahian, eta horretan ere laguntzen diegu.

## SANTI ARRIETA ETXEBERRIA

Joan direnak gure oroimenean bizi dira. **ESKERRIK ASKO** egindako lan guztiairengatik.

**DIANA** BAZKIDEAK MAITASUNEZ



**Iban Garcia (youtuberra):**

## “Dinamikoak izan behar dira Youtubeko bideoak”

Gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz ‘Booktuber’ lehiaketa jarri dute martxan Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak eta Galtzagorri Elkartek. Ekimen honen bitartez Youtuben liburuei buruzko bideoak egiteko animatu nahi dituzte gazteak eta, bideo horiek egiteko, Iban Garcia youtuber azkoitiarraren aholkuak jaso zituzten hilaren 7an liburutegira hurbildu zirenek.

### – Irakurtzea gustuko duzu?

Ez naiz oso irakurzalea. Eskolan bai irakurri ditut hainbat liburu, baina aisialdian ez dut irakurtzeko pasio handia izan. Teknologia munduan ibili naiz gehiago.

### – Hala ere, zein motatako liburuak dituzu gustukoak?

Intrigazko liburuak batez ere, *thriller* puntu bat dutenak. Liburua irakurtzen hasten zarenean bigarren orrialdera pasatzen bultzatzen zaituztenak. Aspertzen nauten liburuak, tira, ez zaizkit gustatzen. Intriga eta abenturakoak izan behar dira nire gustukoak izateko.

### – Hilaren 7an Portalean izan zinen ‘Booktuber’ lehiaketaren berri emateko eta herriko hainbat gazterekin egoteko aukera izan zenuen bertan. Nola joan zen ekitaldia?

Oso gustura izan nitzten, oso ondo pasa nuen. Liburutegian egon ginen, bi edo hiru koadrila etorri ziren eta oso ondo pasa genuen. 10 urteko lagun batzuk etorri ziren eta ilusio handia egin zidan. Izan ere, demaseko izarra izango banintz bezala etorri zitzaizkidan agurtzera. Besteak nagusiagoak ziren, 13 urte ingurukoak, eta egia esan ondo pasa genuen.

### – Zer egin zenuten bertan?

Normalean Galtzagorri Elkarteko lehiaketaren nondik norakoak azaltzen dituzte eta, gero, Youtuben bideoak praktikoki nola egiten diren azaltzen diet nik, irakurleei ‘Booktuber’ lehiaketarako bideoak egiten laguntzeko. Youtubeko bideoak egiteko ekipoa eraman nuen eta bideoak nola egin azaldu nien.



### – Zein aholku eman ahal diezu lehen aldiz Youtuben bideoak egongo dituzten gazteei?

Nik beti gomendatzen diet pentsa dezatela eurak direla bideo hori Youtuben ikusten ari direnak. Imajina dezatela egiten ari diren bideoa ikusten ari direla eta ikusten ari direnarekin ez aspertzea lortu behar dutela. Bideoak dinamikoak izan behar dira. Liburuak ez dira oso interesgarriak izaten askorentzat eta hori lortu behar da, interesgarriak izaten lortzea.

### – Youtuberako egiten dituzun bideoek 5 eta 10 minutu artean irauten dute, baina atzetik lan handia egongo da, ezta?

Bai, demasa. Bideoa ikusten duzu eta ondo dagoela iruditzen zaizu, gustura ikusten duzu eta ondo sartzen da, baina jakin behar da atzean ordu asko dagola. Bideoa pentsatu, grabatu, argia prestatu, soinu egokia jarri, giroa zaindu... gauza asko dira. Askok ez diote horri erreparatzen, baina norbera horrelakoak egiten hasten den momentuan jabetzen da egin beharreko lan guztiaz.

## MARCELINA CAMPOS CAMPOS

2017ko irailaren 5ean hil zen,  
83 urterekin



### FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA

gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



2016an Eibar eta Azkoitia artean sortutako taldea da **Deus Ez**. *Eric Deza* (gitarra eta ahotsa), *Alex Etxeberria* (baxua) eta *Koldo Sagarzazu* (bateria) aspaldiko lagunak dira, talde desberdinetan elkarrekin jardun dute, eta orain proiektu berri honetan burubelari sartuta daude. Rock alternatiboa lantzen dute, 90eko hamarkadako eta gaur egungo soinua inspirazio gisa hartuta. Taldearen lehen diskoa 2017ko udan grabatu dute eta irailean argitaratu. Azaroaren hasieran Ez Dok-en joko dute, eta ondoren Azkoitian eta Durangoko azokan. Alex eta Koldorekin izan gara, eta ilusioa eta gauzak ondo egiteko gogoa erakutsi digute.



ARGAZKIA: Ainhoa Beristain

## “DEUS EZ” MUSIKA TALDEA

# “Diskoa kalean daukagu eta orain zuzenekoak prestatzen ari gara”

– *Talde desberdinetatik pasatu ondoren, zer dela eta sortu duzue Deus Ez?*

**Koldo:** Hirurok elkartu ginenetik beti batera egon gara talde batean ala bestean. Orain denbora gutxiago daukagu, baina gauzak argiago. Serioago hartu nahi genuen, ondo prestatu. Estilo aldetik ere, lehen blues talde bat izan genuen, rock progresiboagoa landu dugu, eta oraingoan zerbait zuzenagoa nahi genuen: kantu motzagoak, ideiak oso argi edukita, estruktura ondo montatuta... Beste ikuspuntu batetik, azken finean.

**Alex:** Guri gustatzen zaiguna, baina aldi berean jendearen gogoko musika egin

nahi izan dugu. Zeozer ona eta eskuragarria, ulerterraza, melodikoagoa, zuzenagoa. Nahiz eta beste genero batzuk egin ditugun, hauxe da guri benetan gustatzen zaiguna, “betiko rock-a”.

– *Nafarroan grabatu duzue diskoa, Drum Groove estudioan. Nola joan dira gauzak?*

Estudioan Josu Ervitiren laguntza izan dugu. Ericen laguna da, goi mailako musikaria, eta asko aportatu du. Gu entzuteko prest geunden eta berak asko lagundu du azken emaitzean. Horregatik oso ondo joan da. Grabaketa oso garestia izaten denez, dena ondo planifikatu genuen eta hi-

*Diskoaren portada ere ondo zaindu nahi izan dute, eta emaitza bikaina lortu dute.*

ru egunetan grabatu genuen. Soinuarekin oso pozik gaude. Bestalde, disko osoa bloke bat izatea lortu dugula uste dugu. Nahiz eta abesti batzuk motelagoak eta beste batzuk indartsuagoak izan, lanak identitate propioa dauka. Oinarri musikala Eric Dezarena da, baina gero hiruron artean moldatzen eta montatzen ditugu abestiak.

– *Zer kontaktatu duzue abestietan?*

Diskoak 10 abesti ditu, guztiak euskaraz. Sentimendu eta harreman kontuak daude, pare bat kantu erreibindikatiboagoak eta zuzenagoak dira, istorio bat ere kontaktatu da... denetarik apurtxo bat.

– *Eta orain...*

Hiru kontzertu lotuta ditugu, Ez Dok-en, Azkoitian eta Durangoko Azokan. Durangoko *Ahotsenean* lan berria ateratzen duten taldeek jotzen dute; Berri Txarrak taldekoek, adibidez, euren lan berria aurkeztuko dute, eta gero gure moduko talde berriak ere egongo dira. Leku ona da. Jende asko egoten da, eta baita talde ezagunak ere. Orain ateak jotzea tokatzen zaigu. Oso serio hartu dugu. Gustura gaude orain arte egindakoarekin, eta orain kontzertuetan ere lan ona egin eta ondo pasatu nahi dugu. Beste erronka bat da. Urduritasuna somatzen da, baina ilusioa eta motibazioa badago.

ARGAZKIA: Ainhoa Beristain



*Ezkerretik eskumara, Alex Etxeberria eta Eric Deza eibartarrak eta Koldo Sagarzazu, Eibarren bizi den azkoitiarra. TALDEAREN INFORMAZIOA OHIKO SARE SOZIALETAN @deusezmusik BEZALA AURKI DEZAKEZUE.*

# moda



# arkitektura

*mikel solas* -MODA DISEINATZAILEA-

## Sentimenduak adierazteko modua

Moda diseinatzaile batentzako ezinbestekoa da kulturalik eta artetik edatea, inspiraziorako eta sormenerako iturri garrantzitsuak direlako.

Artea inspirazioa izatearen adibide garbia 1965an Yves Saint Laurent-ek Piet Mondrian margolariaren kuadro-estanpatuarekin aurkeztutako kolezioa izan zen. Modaren munduan iraultza itzela sortu zuen: garrantzi guztia estanpatuari ematen zioten korte sinpleak eta zuzenak zituzten soinekoak zirelako.

Edozein korrante artistikoko balio dezake diseinatzaile bat inspiratzeko: kuadro bat, eskultura bat, erlijio-sinesmen



mota bat, antzerki-lan bat... Faktore askok sor dezakete diseinatzaile batek bere diseinuetan espresatzeko beharra

sentitzea, nire ustetan norberaren sentimenduak adierazteko modua da-eta.

Dena egon daiteke esanda, esate baterako, estanpatuan, jantziaren siluetaren kortean edo koloreetan. Horretarako kultura desberdinetan murgiltzen saiatzen naiz, museoetara joanez, prentsa eta liburu desberdinak irakurriz eta inguratzen nauten elementuetan ahalik eta gehien fijasatuz.

Niretzako ezinbestekoa da kultura desberdinei buruz ahalik eta gehien jakitea, inspirazioa hartzeko eta sentitzen dudanarekin nahastu ahal izateko, eta sortzen ditudan jantzi-tan adierazteko.



Azken finean, marraztea, ehuna erabakitzea, jostea eta erropa bat amaitutzat ematea... hori guztia nire sentimenduak isladatzeko modu bat da, hitz egiteko daukadan modua. Nire arima biluzteko daukadan era da, idazle batentzat liburu bat idaztea izan daitekeen bezala.

Instagram: [solas\\_design](#)  
Facebook.com/[solasdesigns](#)  
Twitter: [\\_solas\\_](#)

## *olatz etxeberria* -ARKITEKTOA-



Sofiak ez zuen bere etxea barrutik ezagutzen. Bere mundutik at nahi zuen beste irteten zen, beste errealitate batzuk ikasteko, baina etxeko tripak ez zituen inoiz ikusi, beste guztiok bezala. Filosofia ulertu genuen askok berarekin, eskerrik asko denagatik Sofiatxo. Baina arratsalde euri-tsu hartan zerbait ezberdina ikusi zuen bere logelako arrakalan. Ohituta zegoen paretako "fisura" ikusten, baina lo

## Arrakalak



kuluxka egin eta gero, begia zabaldu bezain pronto, arrakala handitzen zihola nabaritu zuen. Indar batek erakarrita bere oinek arrakalako bidea hartu zuten, ez zuen nahi ohetik mugitu, baina ezin zituen pausoak gelditu. Bat-batean, arrakala gurutzatzen ikusi zuen bere burua. Etxeak irentsi zuen. Ez zegoen bere filosofia mundu barruan, baizik eta bere etxe barruan. Arrakalak beheko solairurako bidea hartu zuen eta jausi egin zen. Ez zegoen lekurik etxeko horma barruan, zirrikitu txikia zen, baina nahikoa bere gorputz gaztea bertatik mugitzeko. Baina arrakalak beharantz jarraitzen zuen, eta etxeak ez zituen solairu gehiago. Orduan, lur azpian sartuta

zegoela jakin zuen satorra baltz bezala. Noiz geldituko ziren bere oinak? Norbaitek geldi dezala mundua eta lurra!

Zer gertatzen zitzaion bere etxeari? Euriek lurra mugitu eta eraman zuten, kobazulo txikia eginez bere etxe azpian. Ai ene! Lurrak bere etxea irentsi zuen eta bera barruan zegoen. Gora begiratu nahi zuen, baina ezin zuen lurraren pisuaren kontra indarra egin, beherako bidea jarraitu behar

zuen. Halako batean haize bolada bat igarri zuen bere aurpegian, haizea dator, nondik baina? Arrakalak irteera bat zuen azkenean! Irteera, baina nora? Oinek erritmoa indartu eta argia ikusten hasi zen. Arrakalaren amaiera zen, azkenean aurkitu zuen irteera, zelako poza!

Kanpoan zegoela bere etxeko teilatua besterik ez zuen antzeman, lurrak etxea irentsi zuen.

# Sagardo eguna 2017

Aurten ere eguraldia gure alde izan dugu eta ezinhobeto atera zen urriaren 7an Untzaga plazan ospatu genuen XXIV. Sagardo Eguna. Goiz eta arratsaldez jende mordoia ibili zen Untzaga plazan 13 sagardogilek ekarritako sagardoa dastatzen eta txorizo eta gazta pintxo paregabeak jaten. Kirikoketa, matxaka eta tolarearen inguruan jende ugari bildu zen goizean, eta prestatu genuen muztioak sekulako arrakasta izan zuen. Haurrek, gainera, eurentzako prestatutako txoko berezia izan zuten antzar-jokoari esker.

Gure eskerrik beroenak Guridi eta Koskor tabernei; Ondo Nai, Peña Txinbera, Barakaldo eta Botellin Elkarte gastronomikoei; Jose Luis Fernandez "El Cantón de la Avenida"ri; Jose Mari Alberro, Koroatei baserriko Pilar eta Manueli eta, nola ez, egun osoan lanean jardun zuen lan-talde bikainari. Mundialak zarete! Mila esker!





**X** euskara goZatu  
**EIBARKO UDALA**





# SAGARDO EGUNEKO Selfi lehiaketa



## SELFIE lehiaketako IRABAZLEA

Iker Laka eibartarra izan da aurtengo Sagardo Eguneako Selfie lehiaketako irabazlea. Martitzenean etorri zen sari bila ...eta kitto!-ko bulegoetara (ezkerreko argazkia). Sagardo egunean lagunekin batera atera zuen argazkiari esker 13 sagardo botila eraman ditu Ikerrek etxera. Zorionak eta on egin! Mila esker lehiaketan parte hartu duzuen guztioi aurten ere erakutsi diguzuen umoreagatik. Aupa zuek eta hurrengo urtean gehiago!!!



Aurtengo Selfie Lehiaketaren zozketan Iker Lakak bildaitako argazkia izan da irabazlea.



Zuzendari karguan Jose Luis Novoaren lekua hartu berri du Imanol Urreisti Ulaziak (Mutriku, 1972). Formazioz ingeniari elektronikoa da eta 20 urte daramatza irakaskuntzan, horietako hamabi Armeria Eskolan klaseak ematen. Elektrizitate departamentuko irakasle izatearekin batera, 2009. urteaz geroztik Elektrizitateko alorburua ere izan da.

## IMANOL URREISTI (Armeria Eskolako zuzendaria):

# “Eskola gizarteari zabalik dagoen agente modura ikustea nahiko genuke”

**– Armeria Eskolan irakasle izatetik zuzendari kargua hartzera pasatu zara. Nolakoa izan da aldaketa horretarako prozesua?**

Armeria Eskolan hamar urte baino gehiago daramatzat klaseak ematen eta, horrez gain, azken bi urteetan Zuzendaritzako kidea ere izan naiz. Zuzendaritzak aspalditik ziharduen aldaketaren ideari bueltak ematen, erreleboaren premia zegoela ikusten zen. Horrez gain, 12 urtez Armeria Eskolako zuzendaria izan den Jose Luis Novoak kargua lagatzeko gogoia zuela azaldu zuen iaz eta, gauzak horrela, aldaketa nola egin pentsatzeko eta gai horren inguruko hausnarketa egiteko bilerak hasi genituen. Bileretan, besteak beste, bakoitzak bere burua nola ikusten zuen-eta azaltzen joan ginen... Prozesu hori hasi aurretik, egia esateko, ez nuen argi zuzendari karguan egon nahi nuen ala ez, nahiz eta ez nuen sekula aterik itxi. Baina nire ingurukoek nigan zuten konfidantza ikusten joan ahala eta horrelako babes handia nuela sentitzean, orduan bai, zuzendari izateko aukerari seriotasunez heldu nion. Etxean, familiarekin batera alde onak eta txarrak baloratu eta gero, apirilean erabaki nuen baiezta eta, hortik aurrera, nirekin batera lanean jardungo duen taldea osatzen hasi ginen. Izan ere, zuzendariaren figurak garrantzi handia izan arren, zuzendaritza osatzen duten beste kideen garrantzia ere handia da.

**– Eta zuk zein izango duzu aldamenean?**

Zuzendaritza Batzordea Jose Luis Novoak (zuzendariordea), Aitor Orbegozok (enplegurako prestakuntzaren arduraduna) eta departamentu bakoitzeko alorburuek, Oier Dominguez (Elektronika), Alazne Rementeria (Meatronika), Iñigo Mendiola (Fabrikazio Meekanika) eta Asier Gabilondo (Elektrizitatea)

osatzen dute eta, horrez gain, zuzendaritza berrian Garikoitz Garmendia (Idazkaria), Lander San Martin (Ikasketaburua) eta Iñaki Urbietza (Diruzaina) daude nirekin batera. Oso jende onarekin osatutako taldea da.

**– Armeria Eskolan aurretik egon diren zuzendarien perfiletik pixka bat aldentzen zara, besteak beste adinari erreparatuz gero...**

Baliteke. Ez naiz eibartarra, Armeria Eskolan beharrezko urte asko eman arren ez dut hor ikasi... Zuzendaritzan ez ezik, azken 8 urteotan belaunaldi aldaketa garrantzitsua izan da irakasleengan, jendea jubilatzen joan ahala irakasle berri asko sartzen joan dira eta gaur egun klaustroa nahiko gaztea da.

**– Aurrera begira, zeintzuk dira zuen erronka nagusiak?**

Zuzendaritza aldaketak nahitaez beste aldaketa batzuk ekarriko ditu, jakina, baina horrek ez du esan nahi dena goitik behera aldatuko denik. Izan ere, Armeria Eskolak eskaintzen dituen zerbitzuak, adibidez, aurretik definituta daude eta, beraz, horiek ez dira aldatuko. Baina badaude aldatu nahi ditugun beste gauza batzuk. Nazioartekotzea indartu nahi dugu, adibidez, orain artekoa albo batera laga barik, ikastetxea atzerrira begira ipintzea garrantzitsua dela uste dugu eta horretarako beharrezko jardungo dugu. Horrekin batera, irudi aldetik ere beste erronka bati heldu beharko diogu: 105 urteko historia izateak alde on asko dauzka, baina aldatu beharreko hainbat gauza ere badaude. Emakumearen presentzia indartzea nahiko genuke baita ere, Lanbide Heziketa aukeratzen duten emakumeen portzentaia, gizonezkoenarekin alderatuz gero oraindik ere txikia delako orokorrean eta are txikiagoa industria arloan. Aipatuta



koez gain, herriko talde eta kolektiboak eskolara gerturatu nahi ditugu eta, horretarako, hainbat ekimen lantzen hasita gaude, hitzaldiak eta beste jarduerak batzuk antolatuta Armeria Eskolara erakartzeko asmoz. Ikastetxea gizarteari zabalik dagoen agente dinamiko eta partehartzaile modura ikustea gus-tatuko litzaiguke.

**– Ehun urte baino gehiagoko ibilbidean eskola etenbarik aldatzen joan da, inguruan sortzen joan diren premien arabera moldatzen, ezta?**

Hala da. Gizartea etenbarik eraldatzen joan den bezala, eskola ere horrekin batera aldatzen joan da, sortzen joan diren eskaerei modurik egokienean erantzun ahal izateko. Argi dago enpresa munduak gaur egun eskatzen duenak beste sasoi batzuetan eskatutakoarekin zerkusirik ez duela. Une hone-tan, arlo teknikoa lantzetik haratago, jarrera jakin batzuk lantzea eskatzen dute enpre-san: taldean lan egiteko gaitasuna, inizatiba duen pertsona izatea... Eskatzen den perfil horretara gerturatzeko ezinbestekoa da horrelakoak lantzea.

**– Hizkuntzari begira, nolako garrantzia ematen diozue euskerari?**

Euskera ezinbesteko tresna dela uste du-gu, zuzendaritza osatzen dugun gehienon-tzat euskera ama hizkuntza da eta, ikaste-txearen eskaintzari begira, Armeria Eskolak ematen dituen ziklo guztiak euskeraz egiteko aukera dago. Ikasleei euskeraz edo gaz-teleraz ikasteko aukera ematen zaie eta gaur egun ia ziklo guztiak euskeraz ematen ditugu, bi izan ezik, horietarako euskerazko eskaerarik ez delako egon. Eta hizkuntzak aipatzen hasita, ingelesak ere geroz eta to-ki gehiago hartzen dihardu.

## 200 gimnasta baino gehiagok hartuko dute parte biharko San Andres Torneoan

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak notarekin gainditu eta gero, Ipuru Gimnasia Erritmikako taldeek gogo biziz ekingo diote bihar Ipuru kiroldegian jokatu den San Andres Torneoaren XIX. edizioari. 15 klubetako ordezkariak izango dira bihar arratsaldeko 15:00etatik aurrera jokatu den torneoan eta, guztira, 200 gimnasta baino gehiagoren ariketak ikusi ahal izango ditugu. Hor izango dira Ipuruako senior, kadete oinarrizko eta infantil absolutoko taldeak eta Arrate Baroja eta Lorea Armenariz maila indibidualean.

Bestalde, jokatu berri diren txapelketa bietan eibartarrak ohituta gaituzten goiko postuetan sailkatu dira. Infantil absoluto

mailako boskoteak urrezko domina eskuratu zuen Gipuzkoakoan, maza hiru parekin eta bi arorekin egindako ariketan; Euskadikoan brontzekoa bereganatu zuten. Kadete oinarrizko mailako boskoteak ere urrezkoa eskuratu zuen Gipuzkoako txapelketan, honakoan bost zintekin egindako lanari esker. Senior mailako taldea finago jardun zuen Euskadikoan (zilarrezkoa) Gipuzkoakoan baino (hirugarrenak). Hala ere, azaroan Alacanten jokatu den Espainiakorako txartela lortu zuen. Txartel hori lortu zuten ere banaka jardun zuten Arrate Baro-



Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten Ipuruako taldeak.

jak (Gipuzkoako txapelketa eta Euskadiko bosgarren) eta Lorea Armenarizek (bigarrena txapelketa bietan).

## Asola Berrik hartuko du bihar Euskal Herriko txapelketa



Bittor Astigarraga nagusitu egin zen Barinagan.

Jardunaldi interesgarria jokatu da bihar Eibarko bolatokian, orain arte jokatutako tiraldietan ikusitako parekotasunari erreparatuta. Euskal Herriko hiru txirlo txapelketaren erdia jokatuta, Bittor Astigarraga eibartarra eta Elgetako Sebas Aranzabal daude sailkapeneko gorenean eta bi txirlora jarraitzen dizkie Sorraluzeko San Andreseko Josean Nuñez "Txikik". Barinagan jokatutako azken jardunaldian zazpina txirlo bota zituzten lider biek eta Iruzubietako Sabin Arriagak.

## Alex Aranzabal Osasunako zuzendari nagusia izateko aurkeztuko da



Azaroaren 18an edo 19an egingo diren Osasunaren presidentetzarako bozetan hartuko du parte 2009tik 2016ra arte Eibar FTko presidentea izandakoak. Hiru hautagai aurkeztuko dira hauteskunde horietara eta eibartarra Juan Ramon Lafon Osasunako zuzendaritzako kide-ohia buru duen plantxan joango da. Lafonek irabaziko balu, Aranzabalek zuzendari nagusi kargua hartuko luke. Ricardo Lopez eta Javier Lopez Vallejo jokalaria-ohiak ere talde horretan daude. Beste bi hautagaiak Victor Alvarez eta Luis Sabalza dira, azken hau gaur egungo presidentea.

## Machu-Pichun ere Eibar FT-rekin

Perura joandako argazkiko foballzale kuadrila honek Machu-Pichu bisitatu zuen, "munduko mirarietako bat", eta bertan Aupa Eibar! Eibar FT-ren bufanda zabaltzeko aprobetxatu zuten.



## Pello Osoro eta Asier Cuevas eibartar onenak izan ziren I. Euskal Kosta Krosean

Zumaian irten eta amaitu zen Euskal Kosta Kroseko lehen edizioan 430 korrikalarik hartu zuten parte guztira, eta hor Pello Osoro eta Asier Cuevas izan ziren gure ordezkari onenak. Osorok 18. postuan amaitu zuen (1h17'05") eta Cuevasek 41.ean (1h20'25"). Real Sociedadeko El Hassan Oubadi Portugaltekoak irabazi zuen lasterketa (1h03'53"), Abdelkadi El Mouaziz eta Aziz Lakkrit-en aurretik. Ikusten denez, afrikarrak nagusi izan ziren proba berri horretan. Emakumezkoetan Aroa Merino nagusitu zen.

## Astelenak atek zabalduko ditu domekan denboraldi berriari begira

Lau eta erdiko txapelketa nagusiaren final-laurdenetako ligaxkaren barruko partidua hartuko du Katedralak etzi jaialdiko partidua nagusian. Hor izango dira nor baino nor lehen jardunaldian galtzaile irten ziren Artola eta Altuna III.a gazteak aurrera egitea ahalbidetuko dieten garaipenaren bila. Jaialdiari hasiera emango dion partidua ere ez da nolanhikoa izango eta Retegi Bi - Rezusta eta Jaka - Zabaleta bikoteek neurtuko dituzte indarrak, hau da, lau t'erdiko txapelketatik kanpo geratu diren bi aurrelari eta Aspe enpresako atzelari onenak hartuko dituen partidua. Amaitzeko, Ugalde eta Peña II.aren artekoa jokatu da, hori ere kaiola barruan, promozio txapelketari dagokion norgehiagokan.

Azken urteotan Fernando Bidartek zuzentzen duen Aspe enpresak kalitatearen aldeko apostua egin du Astelenan eta, horre-



la, indar handiagoko jaialdiak antolatzen ditu horien kopurua murriztu badu ere. 2014ra arte 30 bat jaialdi hartzen zituen Katedralak denboraldiko, 2014-15ean 20 hartu zituen eta azken bietan 13 hartu ditu guztira.




### Gaur beste hiru partidua

Afizionatu mailako partidua ere hartuko ditu gaur Astelenak. Eibarko Pilota Eskolak gogor dihardu lanean neska-mutilen artean kirol hori zabaltzeko eta horren islada izango dugu gaur, 19:00etan hasita, Katedralean jokatu diren lehen bi partiduetan: mutiletan Larrarte-Ibarra eta Barrenetxea-Ortega bikoteek neurtuko dituzte indarrak, eta nesketan Izaro Bernedo-Nerea Colmeneros eta Eider Bastida-Einize Egurrolak. Azken partidua senior mailako Gipuzkoako binakako txapelketakoa izango da: Deporrek Narbaiza-Gastañaga bikoteak LAKPEkoa izango du aurrez-aurre.

## Jose Mari Arrazolak Elgoibarko San Pedra ere igo zuen

Jose Mari Arrazola "Maltzaga" geratu barik jarraitzen du bizikleta gainean eta, 80 urterekin, urriaren 12an Elgoibarren jokatuako Ido-torbeko igoeran parte hartu (eta amaitu) zuten artean beterranoena izan zen. 33 minutu eta 58 segundo behar izan zituen txirrindulariak proba amaitzeko. Zorionak!



### BI SAIO HEZKUNTZA ESPARRUAN

**Azaroak 11**  
**ZAPATUA**  
**16:30 eta 19:00**

**Azaroak 12**  
**DOMEKA**  
**16:00 eta 18:30**

**BAZKIDEENTZAKO aurre-salmenta 7,50 €)**

Urriaren 16tik 27ra ...eta kittoIn salgai  
bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez  
Ordutegia: 10:00-14:00 eta 16:00-19:30

**Gainontzekoak 8,00 €**  
Urriaren 28tik aurrera  
- El Tio Palancas (J. Gisasola)  
- Denetik (Urkizu)  
- Gozoki (Bidebarrieta  
eta Sostoatarren)

## Asturias eta Leonen tarteko mendietan pasatu zuten Pilarrikako zubia Deporreko mendizaleek

Lau eguneko zubia aprobetxatzeko Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako irteeran 19 lagun bildu ziren, Puebla de Lillon base hartuta, inguruko mendiak egiteko. "Eguraldi ezinhobea lagun" zutela, eta giro ederrean, 2.000 metroren inguruan dauden gainak lortu zituzten: eguenean Cistiernatik igo eta Peña Corada (1.831 m.); bari-

xakuan Redes parke naturalean ibili ziren eta, Roxecutik irteanda, Pico Torres (2.100) eta San Isidro negu estazioa; zapatuan estazio horretatik irteanda, egun luzeena bete zuten "aurrez pentsatutakoa baino mendi gehiago eginez", tartean Tonea, Aguas (2.141), Requijines eta Ausente eginez; eta domekan Puebla de Lillo-tik igota, "desnibel handiak



Ondo aprobetxatu zituzten lau egunek eskainitako eguraldi bikaina.

gaindituta", Susaron puntara (1.878) heldu ziren, gero bes-

te aldetik zirkularra egin eta lau egunekoarekin amaitzeko.

## Emakumezkoen Eibar FT lider da Logroñorekin berdinduta

Bost garaipen eta berdinketa bakarrarekin (Logroñorekin, hain zuzen), 2. Maila Nazionalean jokatzeko duen taldea sailkapeneko lidergoan dago, errioxarrekin berdinduta. Euren aurretik zegoen Athletic-ek galdu egin zuen azken jardunaldian San Ignaciorekin eta hirugarren dago orain. Xuban Pe-




ñaak zuzentzen duen taldea erraz nagusitu zitzaion Ardoiri azken jardunaldian (3-0), Idoiaren bi golekin eta Sararen hirugarren batekin, eta 1. Mailara begira jarraitzen du.

Bestalde, Eibar FT-k EHU-rekin elkarlanean antolatzen duen kudeaketa ikastaroan izena emateko epea luzatu egin dute. Azaroaren 17an hasiko den hirugarren edizioan Javier Tebas Ligako presidentek eta Julen Lopetegui Espainiako selekzioko hautatzaileak hartuko dute parte, Mendilibarrekin batera.

## Dianako Gisasola hirugarren Gipuzkoako txapelketan

Sailkatutako 26 ehiztarik hartu zuten parte senior mailako Gipuzkoako txapelketan eta Iñigo Gisasola eibartarra 3. postuan geratu zen, zazpi eperrekin, Carlos Conde elgoibartarrak 10ekin irabazitako proban.



BIKOTE LINGUISTIKOAK

**TXALAN TXALAN**

Tel.: 943 20 09 18 / ongietorri@etakitto.eus

**Hizkuntza bat praktikatu nahi duzu? Jende berria ezagutu?**



# Amañako Jaien alde



## HONAKO ENPRESEK

futbol-kamiseten zozketarako zenbakietan

## INBERTITU DUTE

**JB** ELEKTIBAR ELEKTRIZITATEA, S.L.U.  
**PROIEKTUAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**INSTALAZIOAK**  
I. Ojanguren, 2

**ha** hierros  
**arrate**  
hierros arrate  
Goitondo / Mallabia

**Canon**  
Urtzaile, 8

**d** denolan, s.l.  
Muzategi, 1

**Coloniales**  
**Anselmo Gonzalez, s.l.**  
Barrena, 46

**Larragest** API  
**INMOBILIARIA / ASEGURUAK**  
F. Calbeton, 22-24

**Hierros**  
**SERVANDO**  
Urkizu, 13

e-mailez ([eibarcamisetas@gmail.com](mailto:eibarcamisetas@gmail.com)) eta whatsapp-ez (690 610 715) erosi dezakezu.  
Boletoa eskaneatuta bidaliko dizugu.



**MIKEL ERENTXUN**  
(abeslaria)

## “Inspirazioa esnatzen da gaizki pasatzen ari zaren uneetan”

Musikaren munduan 32 urte bete eta gero, Mikel Erentxunek ez du aurkezpenik behar. Duncan Dhu-rekin zein bakarka arrakasta lortu ostean, musikari donostiarrak olatuaren gandorrean jarraitzen du azken urte bietan rock album onenaren Grammy saria jasotzeko izendapena jaso ostean. Hilaren 31an 22:00etan kontzertua eskainiko du Coliseoan.

– *‘El hombre sin sombra’ zure azken diskoak, izenaz haratago, distira egiten du, Grammy saria lortzeko izendapenak erakusten duen moduan. Lan hobek sortzen dira bihozmin eta desamodiotik?*

Niri gutxienez errazago egiten zait horrela. Terapia egiteko balio izateaz gain, inspirazioa esnatzen da gaizki pasatzen ari zaren momentuetan.

– *Oso ibilbide luzea egin duzu musikaren munduan. Nola ekidin duzu itzalean geratzea?*

Nire kasuan pertseberantzia kontua izan da, lanean jarraitzeko dudak grina eta ilusioa. Ez dut argia inoiz galtzen eta beti nago lanean. Inoiz ez naiz nire ofizioaz asperatu. Hori beharrezkoa da. Lan bakoitza ilusio handiz bideratu dut. Ia etengabeko 32 urte izan dira, inoiz ez dut geldialdirik egin, ia urtero ibili naiz biran eta 26 disko ateratu ditut.

Azkenean beti zaude hor. Ez beti modu berean, batzuetan goian eta besteetan ez hain goian, gora eta behera, baina beti hor. Uste dut hori dela egin dudak gauzarik onena edo harro sentiarazten nauena, nire karrerak izan duen jarraitutasuna eta koherentzia, bai Duncan Dhu-rekin bai bakarka.

– *Azaroan banatuko dira Grammy sariak Las Vegasen. Irabazteko itxaropenekin?*

Saria lortzeko izendatua izana saria da. Gainera, bigarrena da, aurreko diskoarekin ere izendapen bera jaso nuelako. Beraz, gauzak ondo egiten ari naizela ziurtatzen dit. Izendapen horiek 50 urterekin heldu izanak harro sentiarazten nau. Horrek esan nahi du nire karrera, sormenaren aldetik, egoera onean dagoela, ohikoena alderantziz izaten denean. Karrera luzeek beharrezko joera izaten dute eta hasierak gogoratzen dira. Nire kasuan, ordea, alderan-

tiz gertatzen ari da eta orain etorri zaizkit esker onak. Ilusio handiz heltzen diot horri.

– *Azken diskoa zure gustu musikalen eta sentimendu pertsonalen erretratu fidela dela diozu. Zure disko intimoena?*

Bai. Niri buruz eta maitasunaren inguruan sentitzen dudana berba egiten duelako. Nire kasuan, iraupen luze bikoitearekin izandako maitasun istorioaz. Nire sentimenduetan biluzten ditut disko horretan. Musikalki ere disko akustikoagoa da, barnekoa, minimalistagoa, eta aurreko albumarekin alderatuz ez da hain barrokoa. Intimoa da, baina rock&roll diskoa era berean.

– *Eibarko kontzertua intimoa izango da?*

Denetarik egongo da. Kontzertu akustikoa izango da, bateriarekin, eta dinamikoa. Une intimoak eta dibertigarriak izango ditu. Azken diskoa errepasatuko dugu, markatu nauten abestiak albo batera laga gabe.

## XIX. Jardunaldi Mikologikoak

**Eibarko Klub Deportiboaren Mendi taldeak, Aranzadi Zientzia Elkartearen** eta Eibarko Udalaren laguntzarekin, antolatutako XIX. Jardunaldi Mikologikoak hilaren 7an eta 8an izan zituzten egun nagusiak. Lizarrusti inguruan bildutako perretxikoak ikusgai egon ziren gero T. Etxebarria kalean eta izan zen tarterik ere perretxiko-pintxoak jateko Deporrekin prestatutako txosnan.



## Deporrekoen erakusketak

**Klub Deportiboko Argazki Taldeak, hileroko martxari jarraituta,** urrirako bi erakusketa prestatu ditu beste horrenbeste tabernetan: urriaren 31ra arte Ambigú ka-



fetegian Conxita Lopez Herrera-  
ren lanak ikusteko aukera izango da eta Portalea jatetxean, berriz, Jose Luis Irigoienek.

## The Godfathers domekan Portalean / Asier Serrano hilaren 27an Coliseoan



**Etzi arratsaldeko 19:30ean eskainiko du Londresko taldeak** bere kontzertua Gaztelupeko Hotsak-en bitartez sortutako proiektu berriaren lehen emanaldian. Sarrerak agortuta daude. **Datorren asteko barixakuan, bestalde, Asier Serranoren Linbotarren itzalak ate ostean** kontzertua izango da Coliseoan, 20:30ean hasita. Ikuskari literario-musikalaren prezioa 5 eurokoa da.







## Chévere konpainiak "Eroski Paraiso" taularatuko du gaur

Gailegoz eta gazteleraz eskainitako lanak ordu eta erdi irauten du eta bertan 1972 eta 1990 bitartean funtzionatu zuen "O Paraiso" jokaretoa gero Eroskiko supermerkatu bilakatu zen istorioa kontatzen da. Lanak 2014ko Antzerkiko Sari Nazionala jaso zuen eta, Chévereren beste pieza batzuetan bezala, ikerketa prozesu baten emaitza da. Funtzioa 20:30ean hasiko da.

## Txikienei gerturatzeko dantza ikuskizuna eskainiko dute bihar

Fernando Hurtado dantza konpainiak "Lorez lore" eskainiko du bihar Coliseoan, "3 eta 6 urte bitarteko haurrak etorkizuneko ikusle" bihurtzeko asmoa duen proiektuan. Ikuskizuna familia guztiarentzako da eta haurrak estimulatu dituzte arte eta kultura ikusle gisa izan beharko litzuketen zentzumen ezberdinen bidez: urteko urtaroen bitartez, inguratzen gaituen naturarekiko kontzientzia helaraztea bilatzen du. Abraham Muñoz eta Inma Montalvo (azken honek obra zuzentzen du) dira antzezleak. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta sarrerak 5 eurotan daude salgai.



## Domekan itxiko dute Liburu Azoka

Urriaren 12an Untzagan zabalduko Liburu Azokak etzi itxiko ditu ateak. Udaleko Kultura sailak lagunduta Euskadiko Liburu Garbarak antolatzen duen azoka aurreko urteetan baino egun bat gehiago iraun du, betiko martxan euskal eta erdal nobedadeak salgai ipinita, euskal diskagintzako lanekin batera, "guztiak %10eko beherapenarekin". Goiz eta arratsaldez dago zabalik: 11:00-14:00 eta 17:00-20:30 ordutegian.

## Helduen Bertso Eskola

Hankamotxak Bertso Eskolakoek heldu hasiberrien taldea osatzen dihardute. Orain arte hainbat lagun animatu dira, baina talde polita osatu ahal izateko beste bizpahiru animatzea gustatuko litzaieke eta, hori dela eta, izena emateko aukera zabalik dagoela jakinarazi nahi diote jendeari. Norbait animatuz gero, hankamotxak@gmail.com helbidera idatzi dezake.



## Eibarko Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan (aurretik, 11:15ean kalejira egingo dute musikariek). Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako hauek eskainiko dituzte: "Parrita en Tolosa" (pasodoblea, F. Peñafiel), "Una noche en Granada" (poema liriko, E. Cebrían Ruiz), "Una noche en Calatayud" (poema sinfonikoa, P. Luna), "La máscara del Zorro" (BSO, James Horner) eta "El camino Real" (fantasia latinoa, A. Reed).




## "Elikadura kontzientea" ikastaroa

Natural Biodendak antolatutako "Elikadura Kontzientea eta Sukaldaritzako Bioenergetikoa" ikastaroa bete arren, hainbatek parte hartzeko interes handia dutela ikusita, bigarren taldea martxan ipintzea erabaki dute. Ikastaroa berdina izango da, Portalean, egun eta ordutegi berean (azaroak 9, 16 eta 23, 18:00etatik 20:30era). Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko 656 716119 telefonora deitu edo silvanahuegun@hotmail.com helbidera idatzi daiteke.

## MOTA GUZTIETAKO ZERBITZUAK:

- Eskolara - lantegira - Turismoa - Kirola
- Sagardotegira - Bodegara - Elurretara
- Eskontzak - Familia bazkariak...

www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



IDURRE  
IRIONDO

## Agortu dira BEC-eko finalerako sarrerak

Bertsozale Elkarteak salgai jarri dituen guzti-guztiak saldu direnez, ez da lehiatilarik zabalduko BEC-en. Urrats handia egin zuen 2005 urtean Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak: aurreko bost edizioetako etxea izandako Donostiako Belodromotik irten eta Barakaldoko BEC-era joan zen. Aulki librerik ez zen gelditu Andoni Egañaren azken txapela eta bertsolari belaunaldi berri baten etorrera ekarri zituen final hartan. Orduz geroztik jokatu direnak bide beretik joan dira eta, 2017ko honetan, abenduaren 17ko hitzordurako bi hilabete falta diren honetan sarrera guzti-guztiak saldu dira, 14.000 inguru. Astelehenean agortu ziren eta, autobusetarako eta bazkarirako txartelak izan ezean, zer saldurik ez dagoenez, BEC-eko lehiatilarik zabaldu ere ez dira egingo.

## Aukeratu dituzte Indalezio Ojanguren XXX. Argazki Lehiaketako irabazleak

Aurreko zapatuan bildu zen Indalezio Ojanguren XXX. Argazki Lehiaketaren epaimahaia aurtengo irabazleak aukeratzeko. Edizio honetan 45 partehartzaile izan dira, horietako 13 eibartarrak eta Luis Lainsa (AFIAP), Javier Ortiz



(ECEP) eta Javier Muñoz (AFIAP) epaimahaikideek aho batez honako sariak ematea erabaki zuten: Indalezio Ojanguren Ohorezko Saria argazki bilduma onenari, Oskar Manso Navasek eskuratu du; Indalezio Ojanguren Sariak, berriz, Juan Antonio Palacios eta Bakarne Elejalde eibartarrek, Carles Canals-ek (Masats) eta Carles Verdu-k (Prats) eraman dituzte; Euskal Herri mailako Indalezio Ojanguren Sariak Jose Agustín Gurrutxaga, Xabier Arnaiz Etxeberria eta Manu Barreiro Rodriguezentzat izan dira; Herri mailako Indalezio Ojanguren Sariak Jose Luis Irigoien, Virginia Arakistain eta Oskar Baglietok irabazi dituzte; eta haurren mailan Miren Ereña saritu dute. Sariak banatzeko ekitaldia urriaren 27an, 19:00etan izango da, Portalean, erakusketazabaltzearekin batera. Lan irabazleak eta aukeraturako beste batzuk azaroaren 19ra arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian.

## Baroja Collet-en azken eskultura, Lanzaroten

Eibarko artistaren "Mirada alta" izeneko azken lana ikusgai dago Lanzaroteko Matagorda hondartzaren aurrean dagoen Nautilus hotel-esparruan. Hiru metroko altuera du egindako piezak eta beste 500 batekin osatzen du Anton Piñel debarraren etxaldea. Azken honen mezenas edo esku-emaile jardueraz baliatuz, Jose Luis Baroja-Colletek esperientzia berria bizitzeko aukera izan du abuztuaren amaieran uhartera joan eta irailaren erdira arte han



emandako egun guzti horietan. Puerto del Carmenen dagoen urbanizazio horretan Barojak egindako figura altzairu herdoilgaitzezkoa da, azken urteotan erabiltzen hasi den materialekoa hain zuzen. Hiru aste bereziak izan dira artista eibartarrentzat, Lanzarote ez zuelako ezagutzen, eta bertan lan egiteak, ostatu hartzen zuen tokian, arte-lana egiteko beste modu bat eskatu diolako, "ohituta nagoenetik aparte, askoz ere argi gehiagorekin".



**Rap ibiltaria gaur  
 ELGOIBARKO kaleetan**

Gaur, 19:30etik aurrera, eta Kultur Etxearen parean hasita, La Basu, Aneguria eta Raquel Koromak Rap ibiltaria eskainiko dute. Bizkaiko euskal raparen emakume erreferentzialak dira lehen biak eta hirugarrena Sierra Leonako jatorria duen dantzari irundarra da, Fermin Muguruzaren kontzertuetan askotan jardundakoa. Kontzertu ibiltaria San Frantzisko kalean egingo dute, euren erritmo, ahots eta dantza pausuak uztartuz.



**Haurrentzako musika  
 bihar arratsaldean  
 ERMUKO Antzokian**

"Gauoko entziklopedia koxkorra" haurrentzako musika eskainiko du bihar, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, 3 Princeses Barbudes konpainiak. Lanak 50 minutuko iraupena izango du eta funtziorako sarrerak 4 eurotan daude. Helena Casas, Marc Marcé eta Ildefons Alonso dira aktoreak eta interpretatzen dituzten abestietan estetika pop minimalista erabiltzen dute, sormen handiko poesiarekin batera.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Carmelo Argente Garcia. 92 urte. 2017-X-5.
- Manuel Araujo Piñeiro. 84 urte. 2017-X-11.
- Angeles Lasa Lasagabaster. 84 urte. 2017-X-11.
- Santiago Arrieta Etxebarria. 91 urte. 2017-X-13.
- Maritxu Zabala Bildosola. 92 urte. 2017-X-18.

**jaiotakoak**

- Bernat Chiches Olmedo. 2017-X-4.
- Nahia Tena Motrel. 2017-X-9.

**farmaziak**

- Barixakua 20  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 21  
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Domeka 22  
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 23  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 24  
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 25  
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 26  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 27  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017 AN-  
 Mandiola (S. Agustin, 3)

**SUDOKUA**

AURREKOAREN  
 EMAITZA

8	2	7	4	1	5	3	6	9
9	1	3	6	8	2	5	7	4
5	6	4	9	7	3	8	2	1
7	8	2	5	6	9	1	4	3
4	9	5	3	2	1	7	8	6
6	3	1	8	4	7	9	5	2
2	7	9	1	5	4	6	3	8
1	4	6	7	3	8	2	9	5
3	5	8	2	9	6	4	1	7

	7		5		6		2	
			1				8	
			7	9	3			
6				2		7		
		9			4			
	2		3					8
		6	2	4				
	9				6			
5		2		9			6	

**telefono  
 jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak .....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus .....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 20

### GURASOAK BERBETAN

**17:30.** Barixakuak  
Jolasian: kutxatxoak egiteko tailerra. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11).

### DEBABARRENEKO II. GAZTA ASTEA

**19:30.** Aurkezpena. Malen Sarasua gazta ikertzaileak zuzendutako ekitaldia, eskualdeko 7 gaztagileen partehartzearekin. Udaletxeko patioan.

### ANTZERKIA

**20:30.** "Eroski Paraiso" (Chévere). Coliseoan.

## Zapatua 21

### TOPAKETA

**10:00.** Ondarearen Europako Jardunaldiak: "Sketchcrawla", Armagintzaren museoa.  
**15:00.** Bazkaria.  
**18:00.** Bisita museora.

### NAGUSIEN MARTXA

**11:00.** Gipuzkoako 73 jubilatutako etxetatik etorritako partehartzearekin. Kaleetan Kantuz abesbatzak lagunduko die, Urkizutik abiatuta. Ibilbidea 13:30ak inguruan amaituko dute, Untzagan.

### "JANA EZ DA TXANTXA"

**11:00/16:00.** Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta.

**12:00.** Umeendako sukaldaritza tailerra, Xabier Gutierrezen eskutik.

**12:45.** Ipuin-kontalari saioa, Oihulari Clownekin.

**14:00.** Bazkaria. Horrez gain zozketak, bertsolariak, Nathali Chuchon abeslaria... Untzagan.

### BABES ARGAZKIA

**12:30.** Iker eta Amaia babesa azaltzeko agerraldia eta argazkia. Txaltxa Zelaian.

### 1962-AN JAIOTAKOAK

**13:00.** Partehartzaileak batuko dira. Untzagan.

### ODOL-EMALEEI OMENALDIA

**13:30.** Odol-emaleen bilera orokorra eta diploma eta oroigarri banaketa. Ondoren, 14:30ean, bazkaria egingo dute. Unzaga Plaza hotolean.

### DANTZA

**17:00.** "Lorez lore" (Cía Danza Fernando Hurtado). Coliseoan.

### HALLOWEEN

**17:30.** Aurpegia margotze-tailerra, doan, umeentzat. El Corte Inglesean.

## Domeka 22

### DEBABARRENEKO II. GAZTA ASTEA

**10:00/14:00.** Gazta azoka, erakustaldiak, taberna, umeendako tailerrak.

**11:30/12:30.** Gazta egin eta irute/ehuntzea. Untzagan.

### CIELITO MUSIKA BANDA

**11:15.** Kalejira.  
**12:30.** Kontzertua. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**19:30.** The Godfathers. Portalean.

## Astelehena 23

### BIDEO-FORUMA

**18:30.** Emakumeen Istorioak: "Juana de Arco", Leticia Martínez-Alcocerrek gidatuta. Pagatxa elkarteak antolatuta. Portalean.

## Martitzena 24

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Punto-tailerra.  
**17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

## FILMA ETA MAHAI-INGURUA

**19:30.** "Volar" (Zuz: Bertha Gaztelumendi), indarkeria jasan duten bederlatzi emakumeren testigantzak jasotzen dituen filmaren emanaldia eta mahai-ingurua protagonistekin. Biharrian espazioan (Ubitxa 16-18).

## Eguaztena 25

### JARDUNALDIAK

**19:00.** "Energia, ingurumena eta gizartea". "Ingurumena" hitzaldia emango du Meghan Sapp, Planet Energy SL enpresako gerenteak. Portalean (areto nagusian).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andes elizako lokaletan.

## Eguena 26

### MAHAI-INGURUA

**18:30/20:30.** Debabarreneko berrikuntza turistikoari buruzko mahai-ingurua, Ekinguneraren eskutik. Armeria Eskolan.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## zineaColiseoan

### (1 ARETOAN)


**21ean: 19:45, 22:30**

**22an: 20:00**

**23an: 20:30**

### "La Reina Victoria y Abdul"

Zuzendaria: Stephen Frears



### (2 ARETOAN)

**21ean: 19:45, 22:30**

**22an: 17:00, 20:00**

**23an: 20:30**

### "Toc Toc"

Zuzendaria: Vicente Villanueva



### (ANTZOKIAN)

**21ean: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30**

**22an: 17:00<sup>(1 aretoan)</sup>, 20:00**

**23an: 20:30**

### "Handia" (2€ merkeago)

Zuzendaria: Jon Garaño



### (ANTZOKIAN)

**21ean: 17:00<sup>(2 aretoan, GAZTELERAZ)</sup>**

**22an: 17:00<sup>(EUSKERAZ)</sup>**

### "Hurra eta lapurrak 2"

Zuzendaria: Cel Bruncker



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, AIORA, haraiñegun 6 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat etxekuen partez. Askok maite zaittugu!!!



Zorionak, NICOLAS, hilla-ren 11n 2 urte bete zenduaz-elako. Musu haundi bat aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, JULEN, domekan 8 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo erraldoia famelixaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak, UNAX, astelehenian 10 urte egin zenduaz-en-eta. Jarraitu oiñ arte bezain txinxo, primerakua zara-eta!



Zorionak, IKER!, hilla-ren 8xan 3 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo bat etxekuen eta, batez be, Ane, Julen eta Maddiren partez.



Zorionak, MARKEL!!, urriaren 13an urtetxua egin zendualako. Lartan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI, astelehenian 11 urte bete zenduaz-en-eta. Musu pillotia Iruneren partez.



Zorionak, UNAI, gaur 2 urte betetzen dozuz-elako. Etxeko dantzari-xari, etxekuen partez.



Zorionak, MIKEL, hilla-ren 25ian 13 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasatu! Etxeko danon partez.




Zorionak, NAIA, zure 7. urtebetetzi-an. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alaitzen partez.



Zorionak, IZARO, hilla-ren 10ian 9 urte bete zenduaz-elako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAUL Urizar Arruti, astelehenian 7 urte egin zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, LUKIN, astelehenian 2 urtetxo egingo dozuz-eta. Ikusiko dozu zeñi ondo pasauko dogun eguna. Etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, astelehenian etxeko printzesaren eguna izango da-eta. Oso ondo pasau! Musuak etxekuen partez.



Zorionak, ANE!!!!, hilla-ren 12xan urti-ak bete zenduaz-en-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKHI, hilla-ren 17xan 8 urte bete zenduaz-elako. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JAKES, hilla-ren 9xan 9 urte egin zenduaz-elako. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Unaxen partez.




Zorionak, ALEJANDRA, domekan 5 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat amama Arrate eta famelixa guztiaren partez.




Ongi etorri gure artera, BERNAT, urriaren 4tik zaittugu hamen-eta. OINATZek musu haundi bat bidaltzen detsu gu danon partez.



Zorionak, amama JAIONE eta MARA, aurreko egunetan urti-ak bete dozuz-eta. Patxo potolo bana famelixakuen eta, batez be, Oxelen partez.



Zorionak, MANEX, bixar 3 urte egingo dozuz-eta! Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKELtxo, aurreko martitzenian 5 urte bete zenduaz-en-eta! Famelixaren partez.



Zorionak, LAIA, 4 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.

Zorionak, EDU (16xan) eta ITZA (astelehenian 14 urte). Ondo ospatu zeuen urtebetetzi-ak! Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai T. Etxebarria kalean (105 m<sup>2</sup>). 3-4 logela, egongela-jangela, sukaldeta, komun bi eta balkoi bi. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-258913.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 688-899813.  
– Pisua hartuko nuke Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 628-318570.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 657-479770.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Ford SMax autoa salgai. 7 plazakoa. 8 urte. 6.200 euro. Tel. 618-748143.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala salgai edo alokagai J. Etxebarria kalean. 130 m<sup>2</sup>. Erabilera anitzetarako egoia: biltegi, trasteroa... Tel. 647-525990.  
– Garaje handia hartuko nuke Urkizua-Matsaria inguruan. Tel. 690-610740.  
– Industria-pabilioia alokagai, garabiekin, Elgoibarko Olaso poligonoan. 200 m<sup>2</sup> + 70 m<sup>2</sup> solairuaratean (7 metroko altuera). Tel. 649-258913.  
– Taberna-jatetxea alokagai Urkizun. Tel. 615-784312.  
– Trasteroa edo garaje itxia erosiko nuke Arragueta kale inguruan. Tel. 606-088412.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-818176.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 688-899813.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 622-677230.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 678-185304.  
– Neska eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 675-965130.  
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 691-500787.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 637-322757.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-986019.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 688-737757.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauzez eta asteburuetan Eibarren edo inguruetan. Tel. 652-532589.  
– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, dendarri moduan... Tel. 631-363056.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 646-796401.

– Neska eskaintzen da lanerako: umeak zaindu, dendarri jardun... Tel. 632-454817.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-245626.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-834329.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-749329.  
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko goizez. Tel. 632-835745.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-401678.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-625718.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 642-986019.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-999079.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 603-750518.  
– Gizonezko arduratsua eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. 6 urteko esperientzia. Tel. 622-321095.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein egunetan. Tel. 676-229560.  
– Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-610175.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 632-636069.  
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-223075.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, paseatzera ateratzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 661-001246.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-906729.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-061103.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta pegorak edo soziedadadeak garbitzeko. Baita gauzez ere. Tel. 657-479770.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-077316.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Eibarren edo inguruan. Tel. 649-258913.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-218828.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Goizez eta gauzez. Tel. 662-012834.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Arratsalde eta gauzez. Tel. 632-669488.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-907532.  
– Umeak gaixotzen zaizkizunean zainduko dizkizut. Haur Hezkuntzako irakaslea naiz. Orduka edo egunka. Tel. 688-862668.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-059098. Soukaina.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-910326.  
– Gizonezko eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-067287.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Goizez. Tel. 677-689227.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsalde eta gauzez. Baita asteburuetan ere. Tel. 608-886701.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 688-959575.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 661-127328.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 602-818849.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-436462.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-410561.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gauzez eta ospitalean. Tel. 688-739589. Carlos.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-526844.  
– Gizonezko eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia), pegorak edo etxeak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 631-827339.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-627511.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-872772.

## 4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da jornada erdiz. Tel. 943-206868.  
– Kamarera behar da Tiro Pichon jatetxerako. Tel. 656-752658.  
– Eibarko instalazio elektriko enpresa batek elektrizitate-ofizialak eta -peoiak behar ditu. Deitu bulego orduetan. Tel. 686-210796.  
– Emakumea behar da Eibarko taberna batean asteburuetan sukaldean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 655-722967.  
– Kamarera/o behar da Eibarko kafetegia batean. Euskera jakitea baloratuko da. Bidali curriculum: extraeibar2015@gmail.com  
– Kamarera behar da jatetxe batean asteburu eta jai egunetarako. Esperientziarekin. 620810120.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– DBH 3. mailako Matematikak eta Fisika klase partikularrak emateko irakaslea behar da. Tel. 669-293462.

### 5.2. Eskaintzak

– LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Deitu 16:00etatik aurrera. Tel. 663-779231. Asier.  
– Musikaren ikasitakoak gitarra klaseak ematen ditu. Adin guztietarako. Tel. 652-217737. Mariano.  
– Klase partikularrak ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.  
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

# Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv  
**16.900 €**

i20 Fresh MPI 85 cv  
**8.900 €**



i30 Klass TGDI 120 cv  
**13.500 €**

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**ELGOIBAR**

Olaso Polig., 17

943 74 14 80

**OIARTZUN**

Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**BEASAIN**

Errepide Nazionala, 1  
943 80 40 54

**IRUN**

Juan Thalamas, 43  
943 63 97 69

 **HYUNDAI**



Hyundai Gama i30 5 ate: CO<sub>2</sub> emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.  
Hyundai Tucson Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.  
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziarioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com

# KULTU:

26an (eguna)  
**PINTXO-POTEA**  
musika zuzenean

27an (barixakua)  
**GARAGARDO-FESTA**  
zozketarekin



**Zuloagatarren, 3**  
**TEL. 943 208 439**

Eskerrik asko **GUZTIOI!!!**

**23 urte** eibartarron zerbitzura



gama altuko  
2 mō betaurreko  
progresibo

197€

Gure betaurreko  
guztiak **bilduma**  
berrietakoak dira

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan